Esker onez

Koro Zumeta

Adopzio-ama 2005etik

Seme-alaben jaioterria: Kolonbia

Nerabetan, adopzio-kasu bat izan nuen hurbil, eta gertutik ikusi ahal izan nuen zer ekarri zion horrek familia hari. Hala, hamasei-hamazazpi urte bete nituenerako, jada ziur nengoen nik ere adoptatu egin nahi nuela. Handik urte batzuetara, gainera, mutil-lagun bat izan nuen –gero senar izan nuena eta nire umeen aita izan zena–, eta hura ere asmo berekoa zen. Gazteak ginen, idealistak, eta ez geneukan bizitzaren alderdi askoren berri handirik; esaterako, ez genekien nolatan iristen diren ume batzuk adoptagai egotera. Kasu bakoitza oso diferentea da, eta egoera batzuk ikaragarri gogorrak izaten dira umeentzat: heldu askok ere eraman ezingo luketen oinazea sufritu behar izaten dute batzuek.

Bizitzan aurrera egin genuen. Bide biologikotik ere izan nahi genuen guraso, baina zailtasunak genituen horretarako, eta argi genuen biok urratu nahi genuela adopzioaren bidea; beraz, tramiteei ekin genien. Hitzaldi askotarikoak entzun genituen, eta nik liburu ugari irakurri nituen, elkarrizketak entzun, eta txatetan, foroetan eta posta elektronikoz zenbait elkarrizketa izan… Eta, horrelaxe, guraso izateko bidea eginez joan ginen.

Guretzat, garrantzitsua zen gure umeek prozesuaren inguruko informazioa izatea: zergatik iritsiak ziren hona, eta nolakoa izan zen haien bizimodua gurera iritsi aurretik. Inoiz zerbait jakin nahi bazuten informazioa eskura izan zezaten nahi genuen

Asko ikasiz, zer nahi genuen pentsatuz. Guretzat, garrantzitsua zen gure umeek prozesuaren inguruko informazioa izatea: zergatik iritsiak ziren hona, eta nolakoa izan zen haien bizimodua gurera iritsi aurretik. Inoiz zerbait jakin nahi bazuten informazioa eskura izan zezaten nahi genuen.

Halaxe joan ziren urteak –bihotzetik jaiotako umeak direla esatea gustatzen zait niri–: espero-urteak, irrika-urteak. Eta, hain luzaroan zain egon ondoren, negarrez urtu ginen haur bat guretzat hautatu zutela jakin genuenean, barrena emozioz, maitasunez, urduritasunez gainezka. Sentsazio asko aldi berean. Harrezkero, egunez egun egin dugu bidea, eta gaur egun ere horretan gabiltza: hankasartzeetatik ikasten, premia eduki uste dugunean laguntza eskatzen, gure umeei jakinarazten bihotz-bihotzez maite ditugula, bizi honetan gertatu zaigun gauzarik onena direla, haiengatik eta haientzat bizi garela, egunero-egunero gozatzen dugula haiekin, eta haien musu bat edo besarkada bat nahikoa zaigula lanegun baten ondoeza zeharo arintzeko.

Plazer hutsa da ikustea nola ari diren bidea egiten. Orain, haien erritmoa errespetatzea dagokigu, haien ondoan aurrera egitea, uzten digutenean laguntzea, hor egotea. Eta niri neuri, berriz, bizitzari eskerrak ematea baino ez zait gertazen, nire seme-alaben ama izateko aukera emateagatik.

